

KURSAAL JAUREGIKO IGOGAILU ETA ESZENATOKIKO MAKINERIAREN MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA, ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

KARATULA

1. Erakunde kontratatzailea eta kontratazio-organoa

Erakunde kontratatzailea CENTRO KURSAAL – KURSAAL ELKARGUNEA S.A. (hemendik aurrera KURSAAL) da.

Zuzendari-gerentea da Kontratazio Organoa, Administrazio Batzordeko lehendakariarekin edo lehendakariordearekin batera. Hauek, zuzenbide pribatuko legeen arabera, egokiak diren pertsonak ahaldundu dezakete kontratuaren zenbait akzio zehatzak betetzeko.

2. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea hau da: Kursaal Jauregiko igogailu eta eszenatokiko makineriaren mantentze zerbitzua kontratatzea, Baldintza Teknikoen orrian aurreikusitakoaren arabera.

Orokorrean zerbitzu hauek barne daude:

- Instalazioa zaintzea
- Mantentze prebentiboa, prediktiboa eta zuzengarria
- 24 orduko arreta
- Egokia bada, antolatutako ekitaldietan laguntzea
- Material suntsikorrak eta beharrezkoak diren ordezkoko piezen horniketa eta aldaketa makineria eta tresneriaren funtzionamendu egokia bermatzeko.
- Kontratutako enpresako langileak lan osagarriak egin beharko dituzte; adibidez, Dimmers instalazioaren funtzionamendua aztertu.

3. Kontratatzailearen profila

Web-orrian (<http://www.kursaal.org>) eta DOUEn (Europar), BOEn, GAOen eta kontratatzailearen profilean argitaratua.

4. Esleitzeko prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko zaio, Plegu honetan adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena egiten duen lizitatzaileari.

5. Lizitazio-aurrekontua/Balio zenbatetsia

Urteroko lizitazioaren gehienezko aurrekontua 158.528,61 eurokoa da, BEZ kanpo.

Kontratuaren balio estimatua, Sektore Publikoen kontratuen urriaren 30 eko 30/2007 Legearen 76. Artikuluaren arabera, 951.171,66 eurokoa da, BEZ kanpo.

6. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena lau urteetako izango da eta gehienez bi urtez luzatu ahal izango du Kontratazio Organoak. Kasu honetan, Kursoalek neurria jakin araziko dio kontratistari, kontratuaren azken hiruhilabetekoaren barne, eta kontratistak kontratua eta plieguen arauak betetzea behartuta dago kontratua eta luzapenaren iraupena bitartean.

Kontratua urtero eten daiteke, betiere beste alderdiari kontratuari uko egiten zaiola jakinarazten bazaio gutun baten bitartez, eta gutxienez kontratua eten baino sei hilabete lehenago egiten bada. Kasu honetan, pliegu hauen 30. klausulako azken paragrafoan esandakoa aplikagarria izango da.

Kontratua 2010eko urtarrilaren 1ean hasiko da.

7. Ahalmena, kaudimen ekonomikoa eta teknikoa

Lizitatzailerak, sailkapen hau ziurtatu beharko dute:

- P taldeko 7 azpitaldean eta C mailaren barru egotea.
- Q taldeko 1 azpitaldean eta C mailaren barru egotea.

Gutxienez mantentze zerbitzuetan 600.000 euroko negozio-bolumena edukitzea, azken 3 urteetan eta hauetako bakoitzean.

Kaudimena ziurtatzeaz gain, lizitatzailerak kontratua gauzatzeko ondoren adierazitako giza bitartekoak barne hartzeko konpromisoa hartuko dute:

- Zerbitzu burua, gradu ertaineko tituluarekin eta gutxienez bost urteko prestakuntzarekin mantentze zerbitzuetan.
- Lehen mailako elektrikari-ofiziala: LHko prestakuntza edukiko du gutxienez.
- Lehen mailako elektronika-ofiziala: LHko prestakuntza edukiko du gutxienez.
- Lehen mailako mekaniko-ofiziala: LHko prestakuntza edukiko du gutxienez.
- CAD delineatzailea: LHko prestakuntza edukiko du gutxienez.
- Ordenagailu bidezko mantentze-kudeaketako sistemetan ezagupenak dituen teknikaria (PRISMA II).

8. Esleipena egiteko kontuan hartuko diren balorazio-irizpideak, garrantziaren eta esleitu zaien haztapenaren arabera

Jarraian adierazten dira balorazio-irizpideak, bakoitzari dagokion haztapenarekin batera:

Proposamen teknikoa: 70 puntu gehienez.

Memoria teknikoa: 30 puntu gehienez.

Langileak: 30 puntu gehienez.

Lizitatuzaileak kontratuari atxikitako giza bitartekoen kualifikazioa eta egokitasuna baloratuko dira, Plegu honetako 12. klausulan eskatzen den gutxienekoarekin alderatuz.

Hobekuntzak: 10 puntu gehienez.

Proposamen ekonomikoa: 40 puntu gehienez.

Eskaintzarik onenak jasoko du puntuazio maximoa eta gainerakoek proportzionalki dagokien puntuazioa lortuko dute, lizitazioaren prezio maximora iritsi arte. Kasu horretan 0 puntu emango dira.

Neurriz kanpotzat hartuko da lizitazioaren gehienezko prezioetik 18 unitate portzentual baino gutxiago aurkezten duen eskaintza. Eskaintza neurriz kanpo badago, KURSAAL eskaintzailearekin bilduko da, eskaintzaren balorazioa frogatu dezan eta kondizioak zehaztu ditzan.

9. Behin betiko bermea:

Enpresa esleipendunak 7.400 euroko behin betiko bermea osatu beharko du, hartutako betebeharrak beteko direla ziurtatzeko.

10. Lanen ordainketa:

Prezioa hilerok ordainduko da, enpresa kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

11. Informazioa eta eskaintzak aurkezteko lekua eta epea:

Informazioa: www.kursaal.org - Tel.: 943 00 30 00

Eskaintzak aurkezteko lekua:
Centro Kursaal – Kursaal Elkargunea S.A:
Zurriola hiribidea 1
20002 Donostia-San Sebastián

Eskaintzak aurkezteko epea: 2009.ko azaroaren 17an goizeko 12.00tan